

Gizartekintzako Memoria

2021





INDICE

Servicios Sociales


- I. SARRERA
- II. EIBAR
- III. UDALEKO GIZARTE-ZERBITZUAK. GIZARTEKINTZA
- IV. ONDORIOAK ETA ERRONKAK

SARRERA

1. Sarrera
2. Eibar
3. Udaleko Gizarte Zerbitzuak. Gizartekintza
4. Ondorioak eta erronkak

Eibarko Udaleko Gizarte Zerbitzuek egindako lana ezagutaraztea da MEMORIA honen helburua. Pandemiak markatutako 2020aren ondoren, 2021a osasun-krisira egokitzeko bide bat izan da, helburu argi batekin: arretaren normalizazioa eta zerbitzuak ematea.

Amaitzeko, ondorio garrantzitsuenak adierazten dira eta erronkak.



2 EIBAR

27.330 biztanle ditu

- Emakumeak: 14.034
- Gizonak: 13.296
- 66-100 urte eta gehiago: 6.570 (3.809 emakume. 2.754 gizon).
% 24,03
- 0-25 urte: 6.453 (3.194 emakume. 3.314 gizon). % 23,61

2.777 bizilagun 77 herrialdetakoak dira

Jatorriaren arabera, hauek dira adierazgarrienak: Maroko, Nikaragua, Kolonia,

1. Sarrera
2. Eibar
3. Udaleko Gizarte Zerbitzuak. Gizartekintza
4. Ondorioak eta erronkak

Beste leku batzuetatik etorritako pertsonak biztanleria osoaren % 10 dira

Pakistan, Dominikar Errepublika

Datuak:
2022ko urtarrilaren 1a

3

UDALEKO GIZARTE ZERBITZUAK. GIZARTEKINTZA

1. Sarrera
2. Eibar
3. **Udaleko Gizarte Zerbitzuak. Gizartekintza**
4. Ondorioak eta erronkak

Udaleko gizarte-zerbitzuak dira herritarren sarrera, gizarte-premiei erantzuteko.

AHOLKULARITZA BATZORDEAK:

Gizartekintza
Berdintasuna
Pertsona Nagusiak

ADMINISTRAZIO-
UNITATEA

4 Administrari
laguntzailea

Oinarrizko gizarte-
zerbitzuak

4 Gizarte-langile

Esku-hartze
komunitarioa

Berdintasun-teknikaria
Immigrazioko teknikaria
2 Familia-hautzaro-
adikzioetarako teknikari

Etxeko Laguntza Zerbitzuko arduraduna
Gizarte Zerbitzuetako zuzendaria

JENDEARENTZAKO ARRETA:

Administrariak:

- ▶ Astelehenetik ostiralera:
09:00-14:00.
- ▶ Udan (uztaila-iraila):
09:00-13:00
- ▶ Astelehenetan (urria-
ekaina): 16:30-19.00


Gizarte-langileak -
Teknikariak (Berdintasuna-
Familia, haurtzarora eta
adikzioak- Immigrazioa:

- ▶ Astelehen-astearte-
osteguna (aldez aurretik
hitzordua eskatuta)

TEKNIKARIEK EGINDAKO ARRETAK

2021ean udaleko gizarte-zerbitzuek aurrez aurreko eta telefono bidezko arreta eskaini zuten. Pandemiaren ondorioz, telefono bidezko arretak egiten hasi ziren aldez aurretik hitzordua eskatuta, eta jarraitu egin zen.

Hona hemen aurrez aurrekoak (3.802) eta telefono bidezkoak (1784) eta etxeko bisitak (137):



3

UDALEKO GIZARTE ZERBITZUAK. GIZARTEKINTZA

1. Sarrera
2. Eibar
- 3. Udaleko Gizarte Zerbitzuak.
Gizartekintza**
4. Ondorioak eta erronkak

ARRETA ADMINISTRAZIO-BULEGOAN

Administrazio-bulegoa da udaleko gizarte-zerbitzuetan sartzeko atea.

Hainbat zeregin garatzen dira: herritarrei arreta ematea, hitzorduak ematea, agenda kontrolatzea, laguntzak, zerbitzuak, dirulaguntzak, administrazio-prozedurak eta abar izapidetzeko prozesuan parte hartzea.

Egindako lanaren daturik garrantzitsuenak hauek dira:

1.- Aurrez aurreko hitzorduak ABarekin izapideak egiteko: 2.550

2.- Telefono bidezko deiak: 16.108:

Hitzordu berrietarako: 727

Jarraipen-hitzorduetarako: 2.194

Informazio orokorrerako eta beste batzuetarako: 13.187

3

UDALEKO GIZARTE ZERBITZUAK. GIZARTEKINTZA

1. Sarrera
2. Eibar
3. Udaleko Gizarte Zerbitzuak.
Gizartekintza
4. Ondorioak eta erronkak

COVID-19AK SORTUTAKO OSASUN-EGOERAREN ONDORIOZKO JARDUERAK

2021ekoa normaltasunerantz egindako prozesua izan da, eta hartara iristea lortu zen azaroaren 1ean atek modu iraunkorrean ireki zirenean. Lehen ere zuzeneko arreta ematen zen, baina kasu guztietan alde aurretik hitzordua eskatuta.

Aurretik egindako jardueren artean:

LAGUNTZA EKONOMIKOA

Gurutze Gorria. Pandemiaren aurretik zegoen lankidetzari eutsi zaio, eta pandemiak eraginda sortu ziren jarduera berriak mantendu egin dira sortutako krisi sozio-ekonomikoaren ondorioz. Gizarte-langileek, balorazioa egin ondoren, kasuak bideratu dituzte. Lankidetzak hori 70.000 €-ko dirulaguntza izendunean gauzatu da, eta horietatik 39.981,48 € gastatu dira.

Haur-Loteak
307 haur

Jostailu solidarioa
168 haur
678 jostailu

Eskolako Materiala
69 haur

Behar-beharrezko
gaiak erosteko
txartela
248 txartel

3

UDALEKO GIZARTE ZERBITZUAK. GIZARTEKINTZA

1. Sarrera
2. Eibar
3. Udaleko Gizarte Zerbitzuak.
Gizartekintza
4. Ondorioak eta erronkak



ALARMA-EGOERAREN AURREKO JARDUKETAK COVID-19AK ERAGINDAKO OSASUN-KRISIA

Udalak gizarte-langile bat kontratatu du bi proiektu zehatz egiteko:

1.- MENDEKOTASUNeko PRESTAZIO EKONOMIKOEN ONURADUNEN JARRAIPENA.

Jarraipenaren helburua da familia-ingurunean zaintzak jasotzen dituzten mendeko pertsonen egoera eta zaintzaileen egoera ezagutzea. Horretarako, 130 pertsona baloratu dira egoera horretan. Hainbat unetan egin den lan hori inoiz baino beharrezkoago ebaluatu da, egoera pandemikoa dela eta.

Gizarte-langileek honako datu eta ebaluazio hauek ondorioztatu dituzte:




3


UDALEKO GIZARTE ZERBITZUAK. GIZARTEKINTZA

1. Sarrera
2. Eibar
3. Udaleko Gizarte Zerbitzuak. Gizartekintza
4. Ondorioak eta erronkak

Zaitzaileen adina eta sexua



Zaintzailea eta mendekoaren arteko harremana



Datuak aztertuta, ondorio orokor hauek azpimarra daitezke:

- Mendekotasuna duen pertsonaren profila 50 urtetik gorako emakume ezkondua da.
- Ikusitako kasuen artean, gehien sortzen den bizikidetz-unitatea senar-emazteena da.
- Kasu gehienetan 2. eta 3. mendetasun-gradua dute.
- Bisitatutako etxebizitzan ia erdietan (% 48) oztopo arkitektonikoak identifikatu dira, batez ere bainugelak eta igogailu faltan.
- Mendeko pertsonen % 71k erreferentziarako gizarte-langilea du, baina azken urtean % 29k izan du harremana gizarte-zerbitzuekin.
- Zaintzailearen profila 50 urte edo gehiagoko emakume bat da: ama, emaztea edo alaba.

3

UDALEKO GIZARTE ZERBITZUAK. GIZARTEKINTZA

1. Sarrera
2. Eibar
- 3. Udaleko Gizarte Zerbitzuak.
Gizartekintza**
4. Ondorioak eta erronkak

2.- BAKARRIK BIZI DIREN ADINEKOEN JARRAIPENA

Jarraipenaren helburua, aurrekoaren antzera, bakarrik bizi diren pertsonen egoera ezagutzea da. Lan hau lehen aldiz osasun-alertaren adierazpenaren ondorioz egin zen. Udalak oso garrantzitsutzat jotzen du pertsona horiek nola zeuden jakitea, eta, horregatik, aurreko egitekorako kontratatu zen langileak proiektu hau ere egin zuen. Hasiera batean, proiektua 70 urte edo gehiago dituzten pertsonari zuzenduta zegoen. Bakarrik bizi diren pertsona kopuru handia ikusita, adin nagusitik txikira hasi ziren. Beraz, 80 urte eta gehiagoko pertsonen jarraipenarekin amaitu da proiektua.

Eibarren bakarrik bizi diren 80 urtetik gorako jarraipena telefono deien bidez egin da. Telefono-dei horietan egindako elkarrizketa-fitxa bati jarraituz, hainbat galdera egin zaizkie. Fitxa honetan pertsonaren osasun-egoera, familia-sarea, gizarte-sarea, bakardade-sentimendua, aisialdia eta osasunaren eta giza baliabideen ezagutza aztertzen dira.

Gizarte-langileak honako datu eta ebaluazio hauek ondorioztatu ditu:

- Deitutako 80 urtetik 100 urtera bitarteko edo hortik gorako pertsona-kopurua: 855 guztira. Datu-analisia adin-tarteen arabera sailkatuta dago: 80 urtetik 84ra /85 urtetik 90 urtera/90 urtetik aurrera.
- Beharrezkoa da jubilatuen etxetara joateko ohitura berreskuratzea, pandemia garaian galdu dena, bakarrik bizi diren adinekoen artean sortu den beldurraren ondorioz.
- Garrantzitsua da bakarrik bizi diren pertsonari Eibarren dauden elkarteei buruzko informazioa ematea.
- Garrantzitsua da Gizarte Zerbitzuek informazioa ezagutaraztea (kokapena, funtzionamendua eta laguntzak/prestazioak/baliabideak)
- Garrantzitsua da Eibarren antolatzen diren kultura-jarduerak ezagutaraztea eta kultura-baliabideetara hurbiltzea, hala nola Coliseora joatea.
- Telelaguntza-zerbitzuari buruzko informazioa ematea 84 urtetik beherakoei.
- Elkarrizketatuek beren esker ona adierazi dute aldizkako jarraipen-deiengatik.

3

UDALEKO GIZARTE ZERBITZUAK. GIZARTEKINTZA GIZARATERATZEA

1. Sarrera
2. Eibar
3. **Udaleko Gizarte Zerbitzuak. Gizartekintza**
4. Ondorioak eta erronkak

GIZARTE-LARRIALDIKO EGOERAK ARTATZEKO HARRERA-ETXEBIZITZA

Egonaldi laburra behar duten pertsonen eta bizikidetzaren unitateen ostatu ematea, gizarte-larrialdiko edo emergentzia sozialeko egoera baten ondoriozko bizitokirik ezari aurre egin ahal izateko, edo bizileku bat edukitzeko, bertan errehabilitatu ahal izateko eta etxeko indarkeria-egoera bat gainditzeko, betiere babes-neurririk behar ez bada.

2 pertsona

LANGABETUENTZAK ETA PENTSIODUNENTZAKO DIRULAGUNTZA

200 €-ko laguntza puntuala DSBEaren titular diren langabe eta pentsiodunentzat.

ESKAERAK GUZTIRA: 519

EMANDAKOAK: 491

ADINGABEENTZAKO ESKOLAZ KANPOKO JARDUERAK EGITEKO DIRULAGUNTZA/LAGUNTZA

Hona hemen onuradun izan diren adingabeen kopurua:

Eskola-kirola: 54

Afariketan: 30

Jazinto Olabe ludoteka: 9

Gurasoen elkartearen kuota: 216

ELIKAGAIEN BANKUA

Baliabide ekonomiko urriak dituzten pertsonen elikagaiak banatzea hilero. Gizarte Zerbitzuek eta Gurutze Gorriak parte hartzen dugun programa.

FAMILIA ONURADUNEN BATEZ BESTEKOA: 152

PERTSONEN BATEZ BESTEKOA HILEAN: 366

HAURTXOEN LOTEAK: 27,91

GIZARTE LARRILADIETAKO DIRULAGUNTZAK

Aldizkakoak ez diren prestazioak, gizarte-bazterkeriako egoerak prebenitzeko, saihesteko edo arintzeko gastu espezifikoari aurre egiteko nahikoa baliabide ez duten bizikidetzaren unitate bateko pertsonentzat.

KONTZEPTUA	EMAKUMEA	GIZONEZKOA
Alokairua	57	34
Azpierrentamendua	9	17
Apopilo-ostatua	1	2
Baterako errentamendua	8	9
Ostatua	2	1
Mantenimendua	146	82
Energia	147	81
Altzariak-elektrodomestikoak	3	0
Konponketa eta instalazioa	1	0
Behar pertsonalak	6	12
Etxebizitzaren mailegua	29	15
Aurretiko zorpetzea	0	4
Guztira (666)	409	257

3

UDALEKO GIZARTE ZERBITZUAK. GIZARTEKINTZA GIZARTERAZTEA

1. Sarrera
2. Eibar
3. Udaleko Gizarte Zerbitzuak.
Gizartekintza
4. Ondorioak eta erronkak

ARRISKUAN ETA/EDO BAZTERKETA-EGOERAN DAUDEN PERTSONENTZAKO GIZARTE- ETA HEZKUNTZA-ARLOKO UDAL-PROGRAMA

Udal-zerbitzu honen helburua da pertsonen autonomia pertsonal eta sozial handiagoa lortzea, beren trebetasunak landuz eta baliabide pertsonalak sustatuz, gizarte- eta hezkuntza-arloko laguntzaren bidez.

Artatutako pertsonak : 35 (Emakumeak 9- Gizonezkoak 26)

Ondorioak:

- Gehienak estatuko gizonak eta pertsonak dira.
- Kasuen bilakaera positiboa izan da, baina kasuen kopuruak gehiago egin du gora ezegonkortasun psikiatrikoagatik edo kontsumoengatik gizarte- eta hezkuntza-arloko jarduerengatik baino.
- Adin anitzeko profila, 40 urtetik gorako erabiltzaileen nolabaiteko nagusitasunarekin
- Oinarrizko ikasketadunak dira, baina ugaritu egin dira profesionaltasun-ikastaro eta –ziurtagiriak dituztenak.
- Aniztasun ekonomikoa: diru-sarrerak bermatzeko errentetatik datozen eta baliabiderik ez duten pertsonen profil nagusia.
- Garatutako lan-helburuen ehuneko handi bat administrazio-laguntzan oinarritzen da, baina kontuan hartu behar da beste faktore batzuen eragina, hala nola kontsumoak eta osasun mentala.

3

UDALEKO GIZARTE ZERBITZUAK. GIZARTEKINTZA GIZARTERAZTEA

BAZTERTUAK IZATEKO ARRISKUAN DAUDEN PERTSONENTZAKO TUTORETZAPEKO ETXEBIZITZA

Bazterkeria-arrisku handiko pertsonentzako egonaldi laburreko edo ertaineko udal-etxebizitza. Gizarte- eta hezkuntza-arloko laguntza-zerbitzua ematen da.

4 pertsona

1. Sarrera
2. Eibar
- 3. Udaleko Gizarte Zerbitzuak. Gizartekintza**
4. Ondorioak eta erronkak

ALDUNDIAREN BALORAZIOA ETA LAGUNTZA ESPEZIALIZATUA

Gizarte-bazterkeria baloratu eta diagnostikatzeko Gipuzkoako Foru Aldundiaren zerbitzua, bazterkeria-egoerak identifikatzea eta, hala badagokio, mailakatzea errazten duena. Era berean, eskatzaileak orientatzen ditu beren premiei hobeto erantzuten dieten zerbitzu edo prestazio ekonomikoetara, edo zerbitzu eta/edo prestazio ekonomikoen konbinaziora, betiere horiek eskuratzeko baldintzak betetzen badituzte.

Emakumeak: 2

Gizonezkoak: 4. Guztira: 6

6

Gipuzkoako Foru Aldundiaren zerbitzu bat da, eta, laguntza espezializatuaren bidez, erabiltzaileari aukera ematen dio bere egoera kontrastatzeko, autonomia pertsonalaren garapenarekin eta gizarteratzearekin lotutako helburuak zehazteko eta prozesu osoan erreferentziatzeko pertsona bat izateko.

Emakumeak: 2

Gizonezkoak: 0. Guztira: 2

3

UDALEKO GIZARTE ZERBITZUAK. GIZARTEKINTZA. GIZARTERAZTEA

NEGUKO DISPOSITIBOA

1. Sarrera
2. Eibar
3. **Udaleko Gizarte Zerbitzuak.
Gizartekintza**
4. Ondorioak eta erronkak


Eibarko Udalak 4 plazako dispositibo bat ireki zuen otsailaren 28tik apirilaren 16ra, eta 26 gautan aktibatu zuten. Kontuan hartuta garai hartan COVID-19aren intzidentziaren arabera mugikortasuna mugatuta zegoela udalerrri bakoitzeko, 2 izan ziren erregulartasunez erabili zuten pertsonak, eta guztira 3 erabiltzaile izan ziren.

Debabarreneko gainerako Udalekin batera (Mutriku, Deba, Mendaro, Elgoibar eta Soralue) abenduaren 1ean neguko gailua irekitzea izan da apustu sendoa. Laguntza-intentsitate txikiko zerbitzua da, bazterkeria-egoeran dauden pertsonen eskaintzen zaiena, batez ere oinezkoei eta etxerik gabekoei. Dispositiboak 14 plaza ditu, txandakakoak eta aurrez ezarritako 5 egun/hileko denborakoak, 4 plaza eskualdeko pertsonentzat, batez besteko egonaldi baterako, eta 6 plaza egoera klimatologiko txarretarako.

Honako zerbitzu hauek ematen dira:

1. Informazio eta harrera zerbitzua
2. Gizarte- eta hezkuntza-arloko esku-hartzea
3. Ostatua
4. Mantenua (afaria eta/edo gosaria)
5. Higiene pertsonala
6. Ikuztegia
7. Oinarrizko arropa (oheko arropa)

Dispositiboa Karmen kaleko 2. zenbakian dago, Aita Karmeldarrek doan lagatako lokalean, eta horretarako egokitu dute. Irekita egongo da 2022ko apirilaren 15era arte. Erabiltzaile kopurua irekiera hilabetean:



3

UDALEKO GIZARTE ZERBITZUAK. GIZARTEKINTZA PERTSONAK NAGUSIAK

Gizarte Zerbitzuak Eibarko adineko jubilatuen 4 elkarteekin (Ipurua, Urki, Untzaga eta Beheko Tokia) lankidetzan aritzen da, autoantolaketa sustatzeko eta haien jarduera babesteko. Proiektu zehatzak egiteko dirulaguntzak ematen dira.

Alarma-egoera zela eta, eta osasun-agintariak adierazitako neurriak hartu zituztenez, irailetik aurrera ekin zioten berriro jardueraren zati bati.

IPURUA

URKI

BEHEKO TOKIA

UNTZAGA

BIZTU
Koordinakundea

1. Sarrera
2. Eibar
3. Udaleko Gizarte Zerbitzuak.
Gizartekintza
4. Ondorioak eta erronkak

3

UDALEKO GIZARTE ZERBITZUAK. GIZARTEKINTZA

PERTSONAK NAGUSIAK.

1. Sarrera
2. Eibar
3. **Udaleko Gizarte Zerbitzuak.
Gizartekintza**
4. Ondorioak eta erronkak

ETXEZ ETXEKO ZERBITZUA

Etkez Etxeko Laguntza Zerbitzua zerbitzu asistentzial eta prebentiboa da, erabiltzaileari bere etxean egoten laguntzera bideratua, etxean bertan moldatzea eta komunitate-ingurunean integratzea ahalbidetzen duen etxeko laguntza eta/edo laguntza pertsonala eskainiz, isolamendu-egoerak saihestuz.

Mendekotasu na duten artatutako pertsonak		Bakarrik bizi dira	Ezkondueak Bikotea	Beste senide batzuk	GUZTIRA
+ 80 urte	Emakumeak	31	13	11	55
	Gizonezkoak	3	-	-	3
65-80 urte	Emakumeak	9	7	4	20
	Gizonezkoak	6	-	-	6
- 65 urte	Emakumeak	5	4	6	15
	Gizonezkoak	4	-	-	4
GUZTIRA		58	24	21	103

3

UDALEKO GIZARTE ZERBITZUAK. GIZARTEKINTZA

1. Sarrera
2. Eibar
3. Udaleko Gizarte Zerbitzuak.
Gizartekintza
4. Ondorioak eta erronkak

PERTSONA NAGUSIAK: MENDEKOTASUNA

ETXEZ ETXEKO LAGUNTZA ZERBITZUA

Erabiltzaileen % 61 bakarrik bizi da, eta % 65ek mendekotasun-mailaren bat du.

- Artatutako pertsonak, guztira: 158. Iaz baino % 21, 54 gehiago.
- Artatutako ordu kopurua: 31.594,58 ordu (25.799,75 ordu mendekotasuna duten pertsonen emanda - 5.794,84 ordu pertsona autonomoei). % 2,18 arreta-ordu gehiago.

Mendekotasuna duten artatutako pertsonak		Bakarrik bizi dira	Ezkonduek Bikotea	Beste senide batzuk	GUZTIRA
+ 80 urte	Emakumeak	15	3	2	20
	Gizonezkoak	10	-	-	10
65-80 urte	Emakumeak	6	3	3	12
	Gizonezkoak	4	-	-	4
- 65 urte	Emakumeak	1	4	2	7
	Gizonezkoak	2	-	-	2
GUZTIRA		38	10	7	55


3

UDALEKO GIZARTE ZERBITZUAK. GIZARTEKINTZA

MENDEKOTASUNA

1. Sarrera
2. Eibar
3. **Udaleko Gizarte Zerbitzuak. Gizartekintza**
4. Ondorioak eta erronkak

MENDEKOTASUN-BALORAZIOEN BILAKAERA



3

UDALEKO GIZARTE ZERBITZUAK. GIZARTEKINTZA


1. Sarrera
2. Eibar
3. Udaleko Gizarte Zerbitzuak.
Gizartekintza
4. Ondorioak eta erronkak

MENDEKOTASUNA

MENDEKOTASUNAREN PRESTAZIOAK

- PECE: familia-inguruneko prestazio ekonomikoa eta profesionalak ez diren zaintzaileei laguntzea: mendekotasuna duen pertsonari bere inguruko zaintzaile ez-profesionalek arreta emateko.
- PEAP. Laguntzaile pertsonal bat kontratatzea, mendekotasun handia duten pertsonen hezkuntzarako eta/edo lanerako sarbidea errazteko eta eguneroko bizitzako oinarrizko jardueretan autonomia handiagoa izateko.
- PEV: mendekotasuna duen pertsonarentzako arreta- eta zaintza-zerbitzu bat eskuratzeko. Ezarritako baldintzak beteta zerbitzu publiko edo itundu bat ematea ezinezkoa izan denean onartuko da.

Datuen bilakaera



3

UDALEKO GIZARTE ZERBITZUAK. GIZARTEKINTZA

MEDEKOTASUNA

1. Sarrera
2. Eibar
3. **Udaleko Gizarte Zerbitzuak.
Gizartekintza**
4. Ondorioak eta erronkak

EGONALDI IRAUNKORRAK

Egoitzak mendekotasun-egoeran dauden adinekoei ostatua, mantenua eta arreta pertsonalizatua eskaintzen dieten zentroak dira.

Eskaintzen dituzten zerbitzuen artean:

Ostatua.

Zaintza pertsonaleko arreta.

Arreta medikoa eta erizaintzakoa.

Arreta psikosoziala.

Emakumeak: 45

Gizonak: 33

78

ALDI BATERAKO EGONALDIAK

Mendekotasuna duen adineko pertsona batek behar dituen zainketak bermatu nahi dituen aldi baterako egoitza-baliabidea, familiaren eta zaintzaileen atsedeen-premiei erantzunez.

Emakumeak: 9

Gizonak: 1

10

EGUNEKO ZENTROA

Mendetasun-egoeran dauden adinekoentzako eguneko zentroak eguneko arreta integrala eskaintzen die beren premiak beren ohiko ingurunean behar bezala ase ezin dituzten pertsoneri, eguneroko bizitzako jarduerak egiteko muga fisiko eta/edo psikiko handiak dituztelako.

Emakumeak: 18

Gizonak: 17

35

3

UDALEKO GIZARTE ZERBITZUAK. GIZARTEKINTZA

MENDEKOTASUNA ETA DESGAITASUNA

1. Sarrera
2. Eibar
3. **Udaleko Gizarte Zerbitzuak.
Gizartekintza**
4. Ondorioak eta erronkak

LAGUNTZA TEKNIKOAK

Desgaitasunen bat duten edo mendekotasun-egoeran dauden pertsonak etxean jarrai dezaten laguntzeko produktuak dira, baita eguneroko bizitzako jarduerak egiteko eta gizarteratzeko autonomia pertsonala bermatzeko ere.

Emakumeak: 90
Gizonak: 50

140

UDALAREN LAGUNTZA TEKNIKOAK

Eibarko Udalak laguntza-produktuak hornitzeko zerbitzua sortu du, desgaitasuna, mendekotasuna edo gaixotasun larria duten pertsonen kolektiboari autonomia pertsonala eta eguneroko bizitzako jardueretarako irisgarritasuna errazteko. Zerbitzua arautzen duen Erregelamendu bat dago, 2019ko uztailaren 12an GAOn argitaratua.

Emakumeak: 12
Gizonak: 6

18

KGP

Bizitzako oinarrizko premiei aurre egiteko baliabide nahikorik ez duten adinekoentzako edo desgaitasuna duten pertsonentzako Gizarte Segurantzako pentsioa.

Emakumeak: 15- Gizonezkoak: 14 (29)

ONGIZATE FUNTSA

Hileko prestazio ekonomiko bat da, baliabide urriak dituzten eta 65 urtekoak diren edo lana lortzea eragozten dien desgaitasunen bat duten pertsonentzat.

Bi modalitate daude:
Zahartzaroko GOF.
Baliaezintasuneko GOF

Emakumeak: 0- Gizonezkoak: 1 (1)

3

UDALEKO GIZARTE ZERBITZUAK. GIZARTEKINTZA

MENPEKOTASUNA ETA DESGAITASUNA

1. Sarrera
2. Eibar
3. **Udaleko Gizarte Zerbitzuak.
Gizartekintza**
4. Ondorioak eta erronkak

DESGAITASUNAREN BALORAZIOA

Desgaitasun-maila eta garraio kolektiboak erabiltzeko mugikortasun-zailtasunak daudela zehazteko baremoa baloratzea. Desgaitasun-maila ehunekotan neurtzen da. Desgaitasuna duen pertsona gisa onartua izateko, beharrezkoa da desgaitasuna % 33koa edo handiagoa izatea.

Emakumeak: 109

Gizonak: 129

238

TELELAGUNTZA

Laguntza-zerbitzu honek aukera ematen die erabiltzaileei telefono-linearen bidez eta ekipamendu espezifiko batekin urteko eguneko 24 orduetan atentzio iraunkorra izateko.

Emakumeak: 129

Gizonak: 56

185

APARKATZEKO TXARTELAK

Txartela da, eta ezintasuna eta mugitzeko zailtasuna duten pertsonen aparkatzeko leku bat ematen die, sartzeko tokitik edo helmugatik gertuen dagoena.

Emakumeak: 74

Gizonak: 55

129

UDALEKO GIZARTE ZERBITZUAK. GIZARTEKINTZA

MENDEKOTASUNA PLANA

Mendekotasuna duten adinekoei eta adineko autonomo ahulei arreta ematera bideratutako jarduera-multzo bat da.

Eibarrek esku hartzeko plan bat du, eta lau jarduera-ildo biltzen ditu:

- Adinekoei etxean egoten laguntzea
- Adinekoen osasuna eta ongizatea prebenitzea eta sustatzea
- Zaintzaileei laguntza eta arreta ematea
- Sentsibilizazio komunitarioa

1. Sarrera
2. Eibar
3. **Udaleko Gizarte Zerbitzuak. Gizartekintza**
4. Ondorioak eta erronkak

Gipuzkoako Foru Aldundiak, familia-ingurunean zaintzak jasotzen dituzten zaintzaileentzako prestakuntza-programaren barruan, hainbat prestakuntza-ikastaro antolatu ditu 2021ean, eta 47 zaintzailek parte hartu dute ikastaro horietan. Matia Fundazioak eman ditu ikastaroak eta Portalean egin dira.

3

UDALEKO GIZARTE ZERBITZUAK. GIZARTEKINTZA

BERDINTASUNA

BERDINTASUN ZERBITZUA

Indarkeria sexistaren biktimei arreta eta laguntza ematen zaie. Gainera, prestazio eta baliabide egokiak eskaini eta kudeatzen dira, aldez aurretik baloratutako egoera bakoitzaren arabera.

ARRETA GUZTIRA

2018. urtea: 256

2019. urtea: 328

2020. urtea: 180

2021. urtea: 232

Laguntza psikologikoa indarkeria matxistaren biktimei: 22

Laguntza psikologikoa sexu-indarkeriaren biktimei: 5

Laguntza ekonomikoa genero-indarkeriaren biktima izateagatik: 3

Genero-indarkeriaren egoera egiaztatzen duen ziurtagiria/txostena: 2

1. Sarrera
2. Eibar
- 3. Udaleko Gizarte Zerbitzuak. Gizartekintza**
4. Ondorioak eta erronkak

ANDRETXEA

Udalaren Berdintasun Zerbitzuaren baliabidea da, eta berdintasunaren eta tratu onen alde lan egiteko helburuarekin bat datozen herritar guztien espazio irekia. Gainera, elkarlanerako, kultura-aniztasunerako, emakumeen ahalduntzerako, elkartegintzarako eta hiritarren partaidetzarako gunea ere bada.

3

UDALEKO GIZARTE ZERBITZUAK. GIZARTEKINTZA


1. Sarrera
2. Eibar
3. Udaleko Gizarte Zerbitzuak. Gizartekintza
4. Ondorioak eta erronkak

BERDINTASUNA


Indarkeria matxistaren biktimentzako laguntza psikologikoa

Sexu-indarkeriagatiko laguntza psikologikoa

Indarkeria matxistaren biktimentzako laguntza psikologikoko zerbitzuaren bilakaera Gipuzkoako Foru Aldundia



Sexu-indarkeriaren biktimentzako laguntza psikologikoko zerbitzuaren bilakaera Gipuzkoako Foru Aldundia




3

UDALEKO GIZARTE ZERBITZUAK. GIZARTEKINTZA


- 1. Sarrera
- 2. Eibar
- 3. **Udaleko Gizarte Zerbitzuak.
Gizartekintza**
- 4. Ondorioak eta erronkak

BERDINTASUNA

Indarkeria matxistaren biktimentzako Eibartik kanpoko bizikidetza-harrerako zerbitzuaren bilakaera



Indarkeria matxistaren biktimentzako bizikidetza-harrerako zerbitzuaren bilakaera Eibarren



UDALEKO GIZARTE ZERBITZUAK. GIZARTEKINTZA

BERDINTASUNA- ANDRETXEA

- **Helburuak:**

- Emakumeen ahalduntzea eta autonomia sustatzea hiri-mailan benetako berdintasuna lortzeko ibilbidean.
- Emakumeen partaidetza soziopolitikoaren bultzatzea eta errealitatea genero-ikuspegitik lantzea.
- Lankidetzaren, elkartegintza, kultura-aniztasuna eta tratatu onak sustatzea.
- Hausnarketa- eta eztabaida-prozesuak sustatzea edozein pertsonarekin, indarkeriaren sentsibilizazioa eta prebentzioa, gizartearen eraldatzen laguntzeko.

Informazioa eta harrera: 375 kontsulta (372 emakume - 3 gizon)

Liburutegi zerbitzua: 141

JABETXE ESKOLA

Guztira 74 matrikulazio izan dira (udaberrian 31 eta udazkenean 40) Jabetza Eskolako 2021eko ikastaro eta tailerretan.

Covid 19ren prebentzio-neurriek nabarmen murriztu dute parte-hartzaileen edukiera.

Belaunaldien arteko Autodefentsa Feministaren tailerrean, bikoteka, emakume heldu batek eta adingabe batek hartu dute parte. Beraz, hiru matrikula egon diren arren, 6 pertsonak parte hartu dute. Hiru emakume helduk eta hiru adingabek.

Ikasturtean zehar garatutako ahalduntze-espazioak:

Hitz-ematea, hainbat jatorritako emakumeen topagunea, eta tratu ona sustatzeko lotura afektiboak.

Eibarko sexu-hezkuntzako programa 2019-2020:

- Lehen hezkuntzako ikasleak: 158 neska eta 156 mutil, 314
- Bigarren mailako ikasleak: 303 neska eta 249 mutil, 552
- Lanbide-heziketako ikasleak: 27 neska eta 66 mutil, 93
- Berdintasun Batzordea: 12 bilera
- Emakumearen Mahaia: 10 bilera Emakumearen Mahaiarekin
- Berdintasunerako V. Plana (2021-2024): Udalaren Osoko Bilkurak 2020/12/28an onartua
- Eibarko Udalaren Berdintasun Plana egiteko prozesua
- Genero-indarkeriaren eta sexu-erasoen biktima diren emakumeei laguntza hobea emateko tokiko bigarren protokoloa eta erakundeen arteko koordinazioa: bi bilera

SENTSIBILIZAZIO-KANPAINAK

Martxoaren 8ko kanpaina: emakumearen Nazioarteko Eguna.

- Kanpainaren leloa: bizi-sareak ehuntzen
- Itsaspeko Bihotzen eta Emakume asmatzaileen Literatur Aretoa.
- Adierazten ez den ikuskizun artistikoa.
- Sustraiari eta etorkizunari buruzko dokumentala eta solasaldia.
- Lanen demokratizazioa zaintzeko konferentzia.
- Tailerra: bidea CORONAVIRUSEkin egiten dakigu (nahiz eta parte-hartzaileen gutxieneko edukiera lortu ez).
- Bideo-foruma: Mujeres al cuadrado 2010-2020.
- Martxoaren 8ko irakurketa gida Juan San Martín Eibarko Udal Liburutegiarekin.

Ekainak 28: LGTBI+ pertsonen eskubideen aldeko Nazioarteko Eguna

- Hainbat gunetan kokatutako banku batzuetan, LGTBI banderaren koloreekin margotu ziren. Jarduera parte-hartzailea izan zen.
- Bideo bat egin eta zabaldu zen, sexu- eta genero-aniztasunari buruzko banderetako batzuen esanahia eta jatorria azaltzeko.
- LGTBI banderaren igoera eta kontzentrazioa.
- Ekainaren 28ko irakurketa gida Juan San Martín Eibarko Udal Liburutegiarekin.

SENTSIBILIZAZIO-KANPAINAK

Azaroaren 25a: indarkeria matxisten kontrako nazioarteko eguna

- *Kanpainaren leloa: indarkeria matxisten aurkako matazak ehuntzen*
- *“Palabras dislocadas” liburuen aurkezpena eta solasaldia.*
- *Palabras dislocadas haurtzaroko sexu-abusuak ikusarazteko, salatze eta politizatze proiektua da. Izen bereko liburuan haurtzaroan sexu-abusuak jasan dituen eta helduaroan gogoratzen dituen pertsona batek egin dezakeen ibilbide bat azaltzen da, poema eta autoerretratu fotografikoen bidez.*
- *Autodefentsa Feminista tailerra.*
- *Indarkeria matxisten aurkako matazak ehuntzeko ekintza eta elkarretaratzea.*
- *Ekainean, Untzaga plazan, ehundutako piezak jarri ziren indarkeria matxisten salaketa ekintza sinboliko gisa eta indarkeria matxista jasaten duten emakumeenganako elkartasuna adierazteko.*
- *“Palabras dislocadas” errezitaldi musikatua*
- *Azaroaren 25eko irakurketa-gidak Juan San Martín Eibarko Udal Liburutegiarekin*

INFORMAZIO ETA BALORAZIO ZERBITZUA

Adingabeekin lotutako eskaerei buruzko informazio-, balorazio- eta orientazio-zerbitzu bat dago, banakako, familiako eta/edo taldeko berariazko baliabideak eskainiz.

2018:333 arreta
2019:626 arreta
2020:229 arreta
2021:325 arreta

JAKINARAZPENAK

Babesgabetasun-egoera posibleei buruz jasotako jakinarazpenen kopurua da:

2018:90
2019:117
2020:93
2021:141

Jatorria

- 43 ikastetxe
- Familia: 38
- Gizarte zerbitzuak: 10
- Udaltzaingoa-Ertzaintza: 22
- Foru Aldundia eta/edo Fiskaltza 13
- Osakidetza: 10
- Gizarte-larrialdiak: 1
- Anonimoa: 1
- Bestelakoak: 3

FAMILIAKO ESKU-HARTZEA/INGURUNE IREKIA

Familiaren esku-hartzea egiten da jakinarazitako adingabearen gizarte- eta familia-egoeraren balorazioa arrisku-adierazleren batekin egin ondoren, eta familiak proposatutako baliabideak onartu ondoren.

Familiako esku-hartzeetan artatutako familiak: 43

Familiako esku-hartzean artatutako adingabeak: 88

Ingurune irekian artatutako familiak: 42.
Ingurune irekian artatutako adingabeak: 55

Artatutako familiak guztira: 85
Artatutako adingabeak: 143

Tipologia:

Premia psikikoekiko, segurtasunekoekiko eta prestakuntzakoekiko arduragabekeria Gurasoen ezintasuna haurren jokabidea kontrolatzeko.

FAMILIA/INGURUNE IREKIKO ESKU-HARTZE PROGRAMA

Ingurune irekiko programaren helburu nagusia da gazteei tresnak ematea ezagutzak eta gaitasunak eskura ditzaten eta baliabide, zerbitzu eta testuinguruetan modu egonkorrean parte har dezaten (eskola, familia, baliabide komunitarioak, berdinak taldeak eta abar).

Ikastetxeekin egindako bileren kopurua: 33 aurrez aurre eta telefono bidezko harreman ugari.

Osasun-zerbitzuekin egindako bileren kopurua: 3 online eta telefono bidezko harreman ugari

Programa gauzatzen duen enpresako koordinatzailearekin, hezitzaileekin eta terapeutekin egindako bileren kopurua: 72

HAUR, NERABE ETA NERABEEN I. PLANA

EIBARKO FAMILIA 2018-2021

Helburua da adingabeen eta haien familien sustapena eta babesa bermatuko duten ekintzak bultzatu eta garatzea, haien bizi-kalitatea hobetzeko eboluzio-prozesuan, eta, horrela, haien parte-hartzea eta gizartean pixkanaka integratzea eskubide osoko herritar gisa.

JARDUKETAK:

2021eko 500 egutegiren banaketa, "Haur ikusezinak" gaiarekin, AVAIM elkartearen lankidetzarekin. Azaroaren 20an, haurren eskubideak zabaltzea, haurren eskubide batzuk inprimatuta dituzten 1.000 koaderno hurrei zuzendutako jardueretan banatuz.

EIBARKO HAUR, NERABE ETA FAMILIEN I. PLANA 2018-2021

JARDUKETAK:

- Nerabeen dinamiken taldea: 2 talde
- Zine-foruma: bullying-a: "Un puente hacia terabithia" (20 adingabe, 16 neska eta 4 mutil)
- Gurasoentzako Bullying-ciberbullying hitzaldia.
- Bigarren hezkuntzako ikasleen arteko Bullying-aren aurkako logo lehiaketa. Saria irabazleari. Logoa txapetan inprimatzea eta hedatzea (3000)

3

UDALEKO GIZRATE ZERBITZUAK. GIZARTEKINTZA ADIKZIOAK.

1. Sarrera
2. Eibar
3. **Udaleko Gizarte Zerbitzuak. Gizartekintza**
4. Ondorioak eta erronkak

ADKZIOEN V. PLANA

Mendekotasun-substantzien eta portaera-mendekotasunen kontsumoa ahalik eta gehien prebenitzea eta murriztea, eta, ondorioz, pertsonen eta haien familien osasunean eta, oro har, komunitatean eta biztanlerian dituen eraginak.

GURASOAK MARTXAN

Gurasoentzako prestakuntza:
281 (243 emakume - 38 gizon)

Parte-hartzaileak

Online: 165 pertsona

Aurrez aurre: 116

ADKZIOEN V. PLANA

PREBENTZIOA HEZKUNTZAN
Mendekotasunei aurrea hartzeko
tailerrak ikastetxeetan

1.412 IKASLE

ADIKZIOEN V. PLANA

AISIALDIKO ETA DENBORA LIBREKO
ESPAZIOETAKO PREBENTZIOA

- Gizarte-eragileentzako prestakuntza prebentzioan (udaltzaingoa), euskaraz eta gaztelaniaz: 27 bi taldeetan, 13 pertsona (6 emakume eta 7 gizon) - 14 (2 emakume eta 12 gizon).
 - Alkoholaren eta beste substantzia batzuen abusuaren aurkako kanpainak: Boltitzar
- 444 (195 emakume - 249 gizon)

KULTUR ANIZTASUNA-IMMIGRAZIOA

Herritarrei informazioa eta/edo orientazioa emateko zerbitzua:

- 2018:327 arreta
- 2019:390 arreta
- 2020:426 arreta
- 2021: 675 arreta, 156 atzerritartasun-espeditente erregistratzeko lagunduz.

Alarma-egoera eta egoera juridiko-administratiboa erregularizatzeko beste administrazio batzuekin dituzten zailtasunak direla eta. Immigrazio-zerbitzuak zerbitzua zuzenean eskuratzeko bi mekanismo gaitu ditu, eta horiek izapidetzea ahalbidetu dute: zerbitzu bat administrazio-erregularizaziorik gabeko kasuetarako, eta beste bat administrazio-erregularizazioa eta Espainiako nazionalitatea eskuratzeko aukera duten kasuetarako.

JARDUKETAK

Harrera linguistikoa: erroldatu berri diren eta gaztelania ikasten hasten diren helduentzako laguntza, bi gunetan: helduen Hezkuntzako Zentroan (HHE) eskola-egutegian, eta uztailean berariazko ikastaroetan Portalea eraikinean.

Espainiako nazionalitatea eskuratzeari eta atzerritarren administrazio-erregularizazioari buruzko 3 hitzaldi Helduen Hezkuntzako Zentroko (HHE) gaztelaniazko ikastaroetan eta Portalea eraikineko uztaileko gaztelaniazko ikastaroetan.

Atzerritarren administrazio-erregularizazioari eta Espainiako nazionalitatea eskuratzeari buruzko hitzaldi irekia herritarrei Errebal Plazan (abendua 4).

Bidelagun programa: familia eta pertsona etorkinentzako arreta psikosoziala, migrazio-doluko eta familia-berrosaketako egoerei aurre egiteko (45 pertsona).

Etxeko eta zaintzako langileak orientatzeko zerbitzu zuzena planifikatzea berdintasun-zerbitzuarekin.

Sustapen publikoko jarduerak, eta, zehazki, familia etorkinen egoerei eragiten dietenak, tokiko komunikabideekiko harremanaren bidez, edukiak udalaren webgunean txertatuz eta zerbitzuari atxikitako sare sozialen profilak eguneratuz (Twitter, Facebook).

NAZIOARTEKO LANKIDETZA - GIZARTE-EKIMENA

GARAPENERAKO NAZIOARTEKO LANKIDETZA

Eibarko Udalak bere aurrekontuaren % 1 bideratzen du nazioarteko lankidetzara, eta 3 dirulaguntza lerro ateratzen ditu deialdira:

Elkartasun beka: Eibarko 20 eta 40 urte bitarteko gazteen artean nazioarteko elkartasunaren balioa sustatzeko 2 lankidetzaren beka deialdia da. Zenbatekoa 1,500 €-koa da. 2021ean 2 beka eman ziren.

Sentsibilizazio-proiektuak (24.000 €): udalerrian proiektuak egiteko deialdi bat da, nazioarteko lankidetzarako sentsibilizazioa eta hezkuntza sustatzeko helburuarekin, prestakuntza hori hezkuntza formalean zein arautuan sustatuz edo sartuz. 2021ean Egoaizia elkartearen (2 proiektu) eta Proyde-Proega elkartearen 3 proiektu babestu ziren.

Nazioarteko lankidetzaren proiektuak (374.850,00 €): herrialde pobretuetan proiektuak egiteko dirulaguntzen deialdia da. Eibarko 3 elkarteren eskutik, herrialde hauetan oinarritu ziren proiektuak: Egoaizia (Peru), Proyde-Proega (Argentina), eta Gurutze Gorria (Filipinak).

GIZARTE-EKIMENA

Eibarko udalerrian gizarte-ekintzaren (gizarte-zerbitzuen) esparruan diharduten irabazi asmorik gabeko elkarteei dirulaguntzak emateko deialdia urtero egitea.

Onartutako eskabideen kopurua: 19 eskabide.

Gastatutako aurrekontua: 30.627,733 euro

Udalerriko erakundeekin koordinatzea kasuak bideratzeko, jarduerak zabaltzeko eta lokalak lagatzeko edo errazteko, jarduerak abian jartzeko.

UDALEKO GIZARTE ZERBITZUAK. GIZARTEKINTZA

1. Sarrera
2. Eibar
3. Udaleko Gizarte Zerbitzuak.
Gizartekintza
4. Ondorioak eta erronkak

ONDORIAK ETA ERRONKAK

2021a izan da pandemiak lan-dinamika eta eman diren zerbitzuak markatzen jarraitu duen urtea, eta eragin sozioekonomiko eta psikosoziala indar handiagoz nabaritu den urtea.

Lan karga handia egon da profesional eta administrazioko langile guztientzat. Arreta presentzialen eta telefonikoen kopuruak gora egin du, nahiz eta Saila azaroaren 1etik ireki zen murrizketarik gabe.

Esanguratsua da gizarte-laguntzen gorakada: GLL, txartel ekonomikoak, elikagaien bankua eta pentsiodunentzako eta/edo langabeentzako laguntza puntualak, eskolaz kanpokoak, etab. Era berean, gizarteratzeko zerbitzuak nabarmen ugartu dira, Arragueta etxetik ateratzearen eta pandemiaren konfinamenduaren ondorioz. Eskualdeko neguko dispositiboaren irekitzea balio handia du.

Mendekotasunen, eguneko zentroetarako eta egoitzetarako eskaeren, telelaguntzaren eta etxez etxeko laguntza-zerbitzuaren erabiltzaileen kopurua % 21,54 handitu da. Osasun-alertaren ondorioz behera egin zuten datuak pandemia aurrekoak izaten ari dira berriro.

Bakarrik bizi diren adinekoen jarraipena mantendu da, alarma-egoerarekin hasi dena, eta mendekotasun-prestazioen jarraipena egin ahal izan da.

UDALEKO GIZARTE ZERBITZUAK. GIZARTEKINTZA

1. Sarrera
2. Eibar
3. Udaleko Gizarte Zerbitzuak.
Gizartekintza
4. **Ondorioak eta erronkak**

ONDORIOAK ETA ERRONKAK

Adingabeen babesgabetasun-egoerei buruzko jakinarazpen gehiago jaso dira, indarkeria matxistaren biktima diren emakumeei laguntza psikologikoa emateko zerbitzurako bideratzeak ugaritu egin dira eta etorkinentzako arreta sozio-administratiboak ugaritu egin dira (2020tik 2021era % 58,45).

Berdintasuneko, familia/hautzaroko, adikzioetako eta kultura-aniztasuneko zerbitzuak eta programak egokitu egin dira ematen jarraitzeko.

ERRONKAK honako hauek dira:

1. Andretxea Berria
2. Gizarte Zerbitzuen Mapa garatzen jarraitzea, bereziki mendekotasunaren eta gizarteratzearen arloan.
3. Egingo diren hobekuntza-obren aurrean, erretiratuen etxeetan garatzen dituzten jarduerak eta programak dibertsifikatzea.
4. Berrikuntza gizarte-zerbitzuetan: herritarrekin komunikatzeko beste sistema batzuk baloratzea eta aztertzea, datu-baseak arintzea, elkarreragingarritasuna handitzea, etab.
5. Bakardadearen aurrean prebentzio- eta laguntza-programa bat garatzea.
6. Adinekoen Mahaia